



## POSTA ELEKTRONIKOA

**Baimena ematen diot** goian adierazitako Udalari posta elektronikoa erabil dezan komunikaziorako, dokumentazioa trukatzeko eta jakinarazpenetarako, sinesgarritasun eta froga balio erabatekoarekin, eskabide honekin lotuta niri dagozkidan administrazio egintza guztiekiko. Goian dago adierazita nire posta elektronikoko helbidea.

**Ez diot baimenik ematen** goian adierazitako Udalari posta elektronikoa erabil dezan nirekin komunikatzeko eta dokumentazioa trukatzeko

## ADIERAZTEN DUT

Goian adierazitako udal fitxategi automatizatuan dauden nire datu pertsonalen tratamenduari aurka egiteko eskubidea erabili nahi dudala, 15/1999 Lege Organikoaren 15. artikuluan eta 1720/2007 Errege Dekretuaren 23-26 eta 34-36 artikuluetan xedatutakoarekin bat.

## ESKATZEN DUT

1. Eskabide hau jaso eta hamar egun naturaleko epean goian adierazitako fitxategian jasota dauden niri buruzko datu pertsonalak kentzeko, egoera pertsonal jakin bat dela-eta arrazoi sendo eta legitimoak daudelako.
2. Kendu beharreko datuak honi atxikitako orrian daude zehaztuta, eta eskabidearekin batera aurkeztu diren agiriak ere orri berean daude adierazita. Agiri horien bidez egiaztatu nahi da, beharrezkoa bada, eskaera horren fitxategiko datu berriak benetakoak direla.
3. Datuak kendutakoan, kendu egin dituztela jakinarazteko idatziz goian adierazitako helbidera.
4. Fitxategiaren arduradunak uste badu datu horien tratamenduari aurka egiteko eskaera ez dela bidezkoa, hori ere jakinarazteko eskatzen dut, arrazoituta, hamar egun naturaleko epe berean, 15/1999 Lege Organikoaren 18. artikulua eta 1720/2007 Errege Dekretuaren 117-119 artikuluek xedatzen duten erreklamazioa jarri ahal izateko.

---

AITORTZEN DU sinatzaileak, bere ardurapean, adierazi dituen datuak egiazkoak, zehatzak, osoak eta eguneratuak direla.

DATUEN BABESA. Datu pertsonalak babestearen inguruan indarrean dauden arauak jarraiki, hau adierazten dizugu: inprimaki honetan jasotako datuak egiaztatu edo osatu ahal izango dira beste administrazio publiko batzuei kontsulta eginda. Datuok Udalak tratatuko ditu bere eskuduntzen araberrako eginkizunak eta zerbitzuak aurrera eramateko. Udalak zure datuak legearen arabera tratatuko ditu, beharrezko segurtasun neurriak hartuz eta hirugarrenei lagapenak legeak aurreikusitako kasuetan bakarrik burutuz. Informazio gehiagorako kontsultatu gure pribatasun politika: <https://uzt.gipuzkoa.eus/home.do?De=EU06712216>. Era berean, jakinarazten dizugu datuak atzitu, zuzendu, ezereztu, berauen aurka agertu, tratamendua mugatu eta datuen eramangarritasunari buruz dagozkizun eskubideak baliatzeko aukera duzula, idatziz, telematikoki, aurrez aurre edo posta arruntaz Udalera zuzenduz; Herriko Plaza z/g 20100 Errenteria. Azkenik, beste pertsona fisiko batzuen datuak helarazten baldin badituzu, pertsona horiei aurreko guztiaren berri eman beharko diezu.

**Udal informazioa jaso nahi dut: e-posta, SMS, etb.**

**Tokia**

**Data**

**Sinadura**